

## **2017KO MAIATZAREN 25EAN EGINDAKO OHIKO UDAL BILKURA**

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2017ko maiatzaren 25eko 7:00etan

### **BATZARKIDEAK:**

Lehendakaria: AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA andrea (EH Bildu)

### **Zinegotziak:**

- MARÍA ISABEL BARTUREN LASA andrea (EH Bildu)
- EGOITZ ABIO ARRILLAGA jauna (EH Bildu)
- AITOR IBARZABAL BARTUREN jauna (EH Bildu)
- AITOR APRAIZ IMATZ jauna (EAJ-PNV)
- JOSÉ ANTONIO ABIO ERKOREKA jauna (EAJ-PNV)
- JOSÉ LUIS MARÍA URRUTIA BILBAO jauna (EAJ-PNV)
- IKER MURUAGA GOIKOETXEA jauna
- GORKA AZAOLA LÓPEZ DE GEREÑO jauna (EAJ-PNV)
- ALAIN GÓMEZ BILBAO jauna (BAKIOBAI)
- JOSU GARAI VARA jauna (BAKIOBAI).

Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren ohiko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deusela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikera emoteko legezko “quorum”a dagoala egiaztatu orduko, alkate jaunaren lehendakaritzapean honako gai honeek eztabaidatu eta erabagi dira:

### **1.- 2017KO APIRILAREN 27AN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA IRAKURRI ETA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.**

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2017ko apirilaren 27an egindako ohiko udalbatzaren akta, eta alkate andreak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotziek akta hori ago batez onartu dabe.

### **2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN BARRI EMON.**

Gai honeri hasikera emoteko, idazkariak honako dekretuen barri emon dau; halanda be, zinegotziak dekretuen kopien jaube dira.

*105/2017.- Urigintzako plangintzaren aurrerapen agiria jendaurrean ipintea.*

*106/2017.- Eraikin baten jaubeen komunitadeari obra lizentzia emotea.*

*107/2017.- 1936-1945. Gerra Zibila eta Lehen Frankismoan. Errepresioa. Giza eskubideen urraketak – memoria onartzea.*

*108/2017.- Espediente bat hastea pertsona bateri Biztanleen Udal Erroldan baja emoteko.*

*109/2017.- Probalekua erabiliteko udal baimena.*

*110/2017.- Kultur Etxeko bideo gelea alokatzea.*

*111/2017.- Fakturen obligazioak onartzea.*

*112/2017.- Fakturen obligazioen ordainketa onartzea.*

*113/2017.- Garbibakiori lanak esleitzea.*

*114/2017.- Nominak ordaintzeko ebazpena.*

*115/2017.- Bagilaren 13ko 188/2016 dekretuaren erabagiaren g) azpiatala aldarazotea*

*116/2017.- Kultur Etxeko bideo gelea alokatzea.*

*117/2017.- Pasabide plaka bat aldatzeko ebazpena.*

*118/2017.- Kitapen baten obligazioa onartzea.*

*119/2017.- TECUNI enpresari lan batzuen esleipena emotea.*

*120/2017.- Bazkari bat egiteko baimena emotea.*

*121/2017.- Helikoptero batek lur hartu, aparkatu eta aireratzeko baimena emotea.*

*122/2017.- Pertsona batzuei Udal Erroldan baja emotea.*

*123/2017.- Kultur Etxeko gela bat erabiliteko baimena.*

*124/2017.- Triatloia egiteko udal baimena.*

*125/2017.- Erabagiteko eskubidearen aldeko eguna egiteko baimena.*

126/2017.- Igeltseroen lan poltsaren oinarriak onartzea.

127/2017.- Espediente bat hastea pertsona bateri Biztanleen Udal Erroldan baja emoteko.

128/2017.- Bakioko Udalak eta Kataluniako Unibersidade Politeknikoko Ingeniaritza Zibil eta Ingurumen Sailak sinatu beharreko lankidetzaren hitzarmena onartzea.

129/2017.- Basigoko jaia egiteko udal baimena.

130/2017.- Kontratu txiki bat esleitzeko ebazpena.

131/2017.- Obra hondakinen kudeaketa bermatzeko jarritako 1.239,67 euroko behin betiko fidantza itzultzea.

132/2017.- Fakturen obligazioak onartzea.

133/2017.- Fakturen obligazioen ordainketa onartzea.

134/2017.- EUSKALTEL enpresari obra kontratu txikia esleitzea.

135/2017.- Bakio Kantari egiteko udal baimena.

136/2017.- Epai baten barri emoteko erabagia.

137/2017.- Aingeruren aldeko omenaldia.

Amets Jauregizar alkatea andreak, dekretu honeei buruzko azalpenak emon dauz:

113/2017.- Bai itsasertzeko ingurua, bai “A” eremuan, bai eta Bakea esparruko umeez olgetan egiteko lekuan eta “skate” lekuan be, udako asteburuetan jende ugari ibiltzen dala eta, paperontziak hutsitzeko *Milagros Pérez Varela eta Mercedes Pérez Varela, Comunidad de Bienes (Garbibakio, C.B.)* zerbitzua kontratatu da. Zerbitzua 2017ko apiriletik irailera arte emon behar dabe, asteburuetan, eta horren trukean 2.2669,85 euro gehi BEZA ordainduko jake.

126/2017.- Horren bidez igeltseroen lan poltsa osatzeko oinarriak onartzen dira eta udaleko iragarki taulan, udalerriko ohiko tokietan eta herriko web gunean argitaratzea erabagitzen da. Era berean, eskabideak jasoteko deialdia onartzen da, horretarako epea hauze izanik: 10 lan egun balioudun, 2017ko maiatzaren 19tik kontetan hasita, ordutegia 09:00etatik 14:00etara arte izanik.

Izena emoteko epea amaitu eta lasterrera azterketak egingo dira lan poltsa osatzeko.

128/2017.- Estepona ibaiaren eta Ondarre erreken azterlan hidraulikoa sakonki garatzeko, Bakioko Udalak Kataluniako Unibersidade Politeknikoko Ingeniaritza Zibil eta Ingurumen Sailaren lankidetzaz bilatu dau.

Azterlan hidraulikoaren helburua hau da: egoera desbardinetan herrian egon leitekeen uriola arriskua eta esku hartzeko aukerak zeintzuk diran jakitea.

Horretarako, Unibersidade horrek eta Bakioko Udalak lankidetzaz hitzarmena sinatzea erabagi dabe.

Unibersidadeak aurkeztutako lankidetzaz hitzarmenaren edukia aztertu eta kontuan hartu da, bai eta, azterlanak izango dauan kostuaren balorazio ekonomikoa be, 15.000,00 € gehi BEZa.

134/2017.- Gura dogu enpresa batek Bakioko Udaleko telefono finko, mugikor eta Internet instalazioei buruzko azterlan egitea, helburu honez: azterlan horretan jasotzen dan instalazioen zerrendea eta ezaugarriak Preskripzio Teknikoen Pleguan jasoteko eta, ostean, Udaleko telefono finko, mugikor eta Internet zerbitzua lehiaketa publikoaren bidez esleitzeko, plegu hori oinarri hartuta.

Bien bitartean Euskaltel, S.A. enpresei maiatzetik urrira arteko (6 hilabete) kontratu txikia esleitu jako, zerbitzua prestatzen jarraitzeko.

136/2017.- Horren ganean, udal idazkariak azalpen honek emon dauz:

Bakioko Udalbatzak, 1998/05/28an, Genaroren lan baldintzak onartu eban, eta lan ordutegiari jagokonez hau ere erabagi eban: urtean 1820 orduko presentzia fisiko normalizatua daukan lanaldi osoa, oro har, lanaldi zatituan egingo dana.

Baldintza horreek XII. Arcepafe akordioaren hirugarren xedapen iragankorrean ageri ziran.

Horren ostean, 2005. urtetik aurrera UDALHITZ hitzarmena indarrean dagoan ezker, bai ARCEPAFEn hirugarren xedapen iragankorraren edukina, bai eta behargin horren lan baldintzak kontuan hartuta be, agerikoa da UDALHITZ hitzarmenean arautzen da Erabateko Baliagarritasuneko Lanaldi Luzatua Modalitatea jakola aplikagarri; ganera, beharginak, bere egunean, aurkeztutako txosten juridikoan horixe bera ageri da.

Udalhitz hitzarmenaren 76. artikularen arabera, Erabateko Baliagarritasuneko Lanaldi Luzatuak hartzen dauz, aldi berean, 93 orduko lanaldi luzatua eta erabateko baliagarritasuna, beren errekerimenduek eta inplikazioek.

Urteetatik udaleko lantaldearen urteko lanaldia astelehenetik barikura arte da. zapatuak eta domekak jai hartuz. Baina, 2011tik 2015era arte udaleko lantaldeak zapatu batzuetan be bost ordu beharra egiten eban, eta hori lanordu arruntetik kanpo egiten zan ezker, horren ordainez aste barruan, beharginek lan-egunean, egun bat jai hartzen eban.

Egun libre hori lan taldeko behargin guztiek hartzen eben, euren artean Genarok eta Gorkak.

2016. urtetik aurrera udal lantaldeak ez dau zapatuetan beharrik egiten, baina Genarok eta Gorkak 2016ko garagarrilaren eta abuztuaren artean zortzi zapatuetan beharra egin eben, baina horren ordainez ez jaken ezer onartu.

Genarok aldarrikatzen eban zapatu eta domekez gain, aste barruan lan egun bat jai hartu behar ebala zapatuetan bost ordu behar egitearren.

Udalaren argudioa aldarrikapen horri ezetz esateko haxe izan da, esaterako, Genaro kasuan:

2016 udaleko lantaldeak astelehenetik barikura egiten eban beharra, eta horrela astero-astero urteko lan ordutegia agortzen eban.

Ez egozan zehazturik Gorkaren ohiko lanaldia ez eta Genarorena be, eta horretan jaso behar zan lantaldeari jagokon ohiko lanaldia gehi 93 ordu gehiago, osagarri zehatzak eragindakoa.

Horrek, hasikera batean, ulertu eragiten deusku behar egindako zapatuak ohiko lanaldi luzatuaren osagarri zehatzaren barruan egongo litzatekezala, lantaldearen ohiko lanaldia astelehenetik barikura arte zalako, eta, horregaitik, Genarok 93 ordu horreek amaitu arte ez eban aste barruan libratzeko eskubiderik eukiko eta, beraz, logikoa da pentsatzea osagarri zehatzak jada ordaintzen ebala.

Hortik, Genaroren lan aldarrikapena sortzen da; aldarrikapen horretan adierazoten dau osagarri zehatzak asteburuko zerbitzu horreek osorik ordaintzen ebazala ulertu ezker, betibe beharginak konpentsazinoa librantza egunagaz egiteko eskubiderik izan barik, konpentsazino egun hori onartu jakonez gero, horrek baldintza onuragarriagoa sortu eban, alde bakar baten erabagiz ezan ezabatu daitekena.

Horretan oinarrituta, Bilbaoko Lan.arloko 5. epaitegian Auzi-demanda aurkeztu eta kaleratutako epaian ageri da kontratuaren baldintzen funtsezko aldarazpena egin dala, 2016an bagiletik irailera arteko zapatuetan beharrak egitearren jai egunik ez emoteagaitik, eta horren ordainez udalak Genarori 2.088,80 euro ordaindu behar deusola eta daukazan lan baldintzak errespetatu

Amets Jauregizar alkate andreak, berba hartu, eta egoera horretara zergaitik heldu garen azaldu dau:

*Udaleko plantillan bi motatako beharginak dagoz lantaldean, batzuk lan ordutegi arrunta daukiena eta, beste batzuk, dedikazino berezia, eta gure ustez azken honeek lan ordu arruntetik kanpo premiazko zeregin bat egon ezker behar egin behar ebela.*

*Gero, ikusi genduan dedikazino berezi horrek lan ordutegitik kanpo 93 ordu gehiago sartzea ekarrela, hau da lan-ordutegi berezia euki behar ebala.*

*Zapatueko eztabaida sortu zan lan-legepeko ordezkari sindikalak udalari galdera hau egin eutsonean: lan ordutegi arrunta egiten daben beharginek eta dedikazino berezia daukienak ia zergaitik daukiezan besteen baldintza berberak, azken honeek dedikazino berezia dala-eta gehiago irabazten dabela kontuan hartuz.*

*Guk behargin arrunten planteamendua ulertu dogu, baina egia da epaileak dinoena be, hau da, aurretiaz dedikazino berezia eukazan beharginak 2011-2015 urte bitartean zapatuetan beharra egitearren egun bat libre hartzen eben ezker, (aurreko udal gobernuak horrela onartuta) eskubide hori irabazita daukala eta errespetatu egin behar dala.*

*Horrenbestez, lan taldeko behargin guztiakaz batzarra egin eta planteatu deutsegu jagokezan erabagi guztiak idatziz hartuko doguzala eta ordezkari sindikalagaz adostuta.*

Aitor Apraiz zinegotziak:

*Danok jakin dogu Genarok noiz egiten eban behar eta noiz hartzen eban jai; izan be, lan ordutegi arruntetik kanpo beste behar batzuk egin behar ebazan, esaterako ur-biltegiak ikuskatu; eta uren azpiegituretan ezbeharra egoten zan momentuan deitu egiten jakon, eta horregaitik eukan dedikazino berezia, Gorka Markaida kasuan bere bai. Orain dagoana da barruko liskarra.*

*Bere momentuan lantaldeak lorezaintza eta kale garbitasuna zerbitzuak bere gain hartu ebazan eta itundu zana izan zan zapatuetan beharra egitearren zerbitzu horreetan lantaldekide guztieak aste barruan egun bat libre hartzea.*

Alkate andrea dinotso:

*Berak dinoena hauxe dala, bi motatako lan ordutegia daukiezan beharginak dagoz eta lan egutegi desberdina eduki behar dabazala, beste barik, eta orain arte ez da inoiz egin orduen idatzizko kontrolik, eta guk egingo doguna da beharginei jagokezan erabagi guztiak idatziz hartzeko konpromisoa hartu, ordezkari sindikalagaz berba egin ostean.*

Alkate andrearen eta Aitor Apraizen artean eztabaida izan da

### **3.- 2016-2017 IKASTURTEARI JAGOKONEZ, EUSKERA IKASTEAGAITIKO DIRULAGUNTZAREN DEIALDIA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.**

Zinegotziek gaiaren jakitun dirala kontuan hartuz; izan be, informazino batzordean aztertu da eta, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira

hamaika), erabagi hau hartu dau: **euskera ikasteagaitiko dirulaguntzaren deialdia onestea, edukia hauxe izanik:**

## **1. HELBURUAK ETA DOTAZIOAK**

Bakioko Udalak, euskararen normalizazioa arlo guztietara sustatzeko helburua hartuta, besteak beste, euskara ikasi nahi duten herritarrei erraztasunak eman nahi dizkie eta, horretarako, egokitzat jo du euskara ikasleentzako diru-laguntza sistema antolatzea eta arautzea.

Deialdiaren xedea, Bakion erroldatutako biztanleentzako diru-laguntzak emateko baldintzakarautzea da, 2016/2017 ikasturtean zehar edota udan helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egiteagatik homologaturik dauden euskaltegi edota barnetegietan.

Udalak 2.000 euroko diru-zainpeketa onartu du udal aurrekontuaren 330-4810119 partidan.

## **2. JASOTZAILEAK**

Diru-laguntzaren jasotzaileak: Bakion erroldatuta egon, hamasei urte izan, eta ikastaroak euskaltegi homologatuetan egin dituztenak izango dira.

**Bakion erroldatuta egotea.**

**Gutxienez %75etik gorako asistentzia izatea.**

**Bakioko udalean zorrik ez izatea.}**

## **3. EPEAK**

Eskariak aurkezteko epea, deialdia onartzen den egunetik hasita zabalik egongo da 2017ko irailaren 28ra arte.

## **4. EMATEKO PROZEDURA ETA IRIZPIDEAK**

Diru-laguntzak asistentziaren eta aprobetxamendu edo gainditze mailaren arabera banatuko dira.

Hartara, Ikastaroaren iraupen-denboran %75ko asistentzia egiaztatu beharko da.

Era berean, egindako maila edo mailak gainditu beharko dira edo, bestela, egindako ikastaroetan aprobetxamendu egokia izan. Hori guztia euskaltegiaren ziurtagiri bitartez egiaztatuko da.

Matrikularen %30 lagunduko da diruz. Hala ere, eskatzaileei gehienez eman dakizkiekeen diru-laguntzen kopurua 95 eurokoa izango da.

Gerta daiteke eskaera kopuruaren ondorioz diru-laguntzaren 95 euroko kopurua behar

bestekoa ez izatea ontzat emandako eskaera guztiei zenbateko hori eman ahal izateko; halakorik gertatuz gero, aurrekontu partidan ezarritako diru-kopurua ontzat emandako eskaeren artean hainbanatuko da modu proportzionalean.

## 5. ESKARIAK

Eskabide-orria udal erregistroan aurkeztuko da honako agiriekin batera:

- Matrikularen ordainagiria edota zentroak egindako ziurtagiria.**
- Euskaltegiaren ziurtagiria ondoko datuekin: ikasturtea, hasiera eta amaiera egunak, ordutegia, hasierako maila, ikastaroaren ordu teorikoak, aprobetxamendua zein ikasleak emandako orduak eta matrikularen prezioa.**

## 6. INSTRUKZIOA, ERABAKIA ETA BIRFORMULAZIOA

Eskariak aurkezteko epea amaitu ondoren aztertu egingo dira eta, hala badagokio, interesdunei jakinaraziko zaie hamar eguneko epea dutela falta den dokumentazioa aurkezteko.

Epe horren ostean, eskariak aztertuko dira informazio batzordeak erabakia eman behar duen udalbatzari bere irizpena helarazteko.

Erabakia emandakoan, udalaren iragarki oholean eta webgunean emango da erabakiaren berri, interesdunek jakin dezaten non aurkitu informazioa.

Horrela, onuradunak bere eskaria birformulatu ahal izango du entzunaldiko hamabost eguneko epean. Birformulazio horiek informazio batzordeak onartu edo baztertu egin ditzake eta beharrezko kasuetan, berriro irizpena helarazi.

Birformulazio edo uko egite kasurik egon ezean, emandako diru-laguntza onartzen dela ulertzen da.

## 7. BATERAGARRITASUNA

Diru-laguntza hauek, helburu bera duten beste administrazio edo ente publiko edo pribatu, nazionala edo Europakoa, edo nazioarteko beste erakunde batzuetako beste diru-laguntza batzuekin bateragarriak dira.

Edozein modutan, diru-laguntza inoiz ez da izango diruz laguntzen den proiektuaren gastua baino handiagoa.

## 8. ORDAINKETAK

Erabakia ematean, onartutako diru-laguntza ingresatuko da.

## 9. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

- Baldintzak bete direla egiaztatzea, eta diru-laguntzak oinarri duen jarduera bete dela.**



□ **Diruz lagunduriko jarduerentzat bestelako diru-laguntzak, sarrerak edo baliabideak lortu direla jakinaraztea. Jakinarazpen hori jakin bezain laster egin beharko da, eta izatekotan, jasotako funtsei emandako aplikazioa egiaztatu aurretik.**

## **10. DIRU-LAGUNTZEN ITZULKETA**

Halaber, dirua itzultzeko zioak dira Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 36. eta 37 artikuluetan jasotako guztiak.

## **11. KLAUSULA GEHIGARRIA**

Deialdi honetan jasotzen ez diren bestelako gaiei dagokienez, 38/2003 Diru-laguntzen Lege orokorrean eta bat datozen gainontzeko lege arauetan ezarritakoari lotu beharko zaio.”

### **4.- BAKIOKO HONDARTZAKO ERABILERA-ARAUBIDEA ETA JARDUEREAK ARAUTZEN DAUZAN ORDENANTZEAREN ALDARAZPENA HASIKERA BATEAN ONARTU, HALA BEHAR BALITZ.**

Kontuan hartu beharrekoa hau da:

“Bakioko hondartzako erabilera-araubidea eta jarduerak arautzen dauzan ordenantzea oso-osorik 2007ko bagilaren 20ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zan eta handik eta hamabost egunera indarrean sartu zan.

Horren ostean, Bakioko Udalbatzak, 2016/05/26an ordenantzearen aldarazpena behin betiko onartu eban, beti be surf eskolek hondartzaren esparruaren zati bat erabilteko baldintzak arautzeko”.

Orain proposatzen dana da ordenantzearen 7. artikulua aldarazotea, udatik kanpo animaliak hondartzan sartzea ahalbidetzeko, izango doguzan eskabideak dirala eta. Horretarako, indarrean dagoan 7. artikuluari bigarren eta hirugarren paragrafoak erantsiko litzaioke, era honetara idatzita itxiz:

Galarazota dago hondartzara edozein animalia sartzea; dana dan, salbuespenez udatik kanpo lasterketaren bat antolatu leiteke.

*Txakurren presentzia baimenduko da zemenditik apirilera bitartean (biak barruan), beti be erabiltzaileek animaliak eukiteko udal ordenantza arautzaileak ezarritakoa beteten badabe.*

*Txakurrak hondartza aldera eroan ahal izateko, honakoak derrigorrean bete beharreko baldintzak izango dira: jaubeek kontrolpean eukitea eta jaubeek edo jagoleek txakurren korotzak batzea.*

Gaia informazio batzordean aztertu dala kontuan hartuz, zinegotziek botoa emon dabe, eta, ondorioz, Bakioko Udalbatzak honako erabagia hartu dau, bertaratutako zinegotzien ago batez (11 guztira):

**1.- Bakioko hondartzako erabilera-araubidea eta jarduerak arautzen dauzan ordenantzearen aldarazpena hasikera batean onartu.**

**2.- Espedientea 30 egun balioduneko epean jendaurrean ipintea. Horretarako, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, herriko web gunean eta herriko taulan argitaratuko da beharrezko iragarkia. Epe horretan erreklamaziorik edo iradokizunik egon ezik, erabagia behin betikotzat hartuko da. Toki araubidearen oinarriak arautzen dauzan legearen 70 eta 65.2 artikuluen arabera, aldarazpena hamabost egun buruan indarrean sartuko da, beti be Bizkaiko Aldizkari Ofizialen oso-osorik argitaratzen dan biharamunetik kontetan hasita.**

### **5.- 2017 EKITALDIKO UDAL AURREKONTUARI BURUZKO 3. ALDARAZPEN ESPEDIENEA ONARTU, BETI BE KREDITU GEHIGARRIEN MODALIDADEAN, HALA BEHAR BALITZ.**

Kreditu gehigarrien nondik norakoak

Aurrekontu partida	Kontzeptua	Kredituak		
		Gaur egun	Aldarazpenak	Behin betikoak
920.369.01.01	Aurrekontuari aplikatzeko fakturen hartzekodunak (4130 kontuaren Olabarriren Konkurtso Administrazioari onartzeko kopurua; 331/2014 Dekretua)	0,00 €	300.000,00 €	300.000,00 €
920.131.00.01	K) 633/16 eta 636/16 epaiak, Iciar eta Maite Bilbao ahizpek udalari egindako erreklamazioari buruzkoa	0,00 €	97.096,74 €	97.096,74 €
920.160.03.02	L) Maite eta Iciar Bilbaok erreklamaturako tramitazio soldatak	0,00 €	28.000,00 €	28.000,00 €
<b>GUZTIRA</b>		0,00 €	<b>425.096,74 €</b>	<b>425.096,74 €</b>

### **KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA**

Gastu partiden kontzeptuak	Baliabidearen kontzeptua	FINANTZATZEKO Baliabideak
870.01	<b>2016ko DIRUZAINZAKO GERAKINA</b>	<b>425.096,74 €</b>
		<b>425.096,74 €</b>

Amets Juaregizar aldarazpenaren ganeko azalpenak emon dauz. Horren ostean, zinegotziek botoa emoteari ekin deutse, ganera, espedientea informazio batzordean aztertu dala kontuan izanik, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira bederatzi), erabagi hau hartu dau: **2017 ekitaldiko udal aurrekontuari buruzko 3. aldarazpen espedientea onartzea, beti be kreditu gehigarrien modalidadean**

**6.- 2017KO EKITALDIARI JAGOKON UDAL AURREKONTUAREN BETEARAZPEN EGOEREAREN BARRI EMON, MARTIAREN 31RA ARTEKO EPEARI JAGOKONEZ.**

Aitatutako gaia dala-eta zinegotziek horrerri buruzko agiria daukien ezkerro, horren barri emon da, beste barik.

**7.- 2017KO LEHENENGO HIRUHILEKOARI JAGOKOZAN BATEZ BESTEKO ORDAINKETA EPEAREN ETA 26. BERANKORTASUN TXOSTENAREN BARRI EMOTEA.**

Seko 15/2010 Legearen 4. artikulua araberan, diruzainek edo kontu-hartzaileek hiru hilabetetik hiruhilabetera txostena egin behar dabe, onartutako fakturen ordaintzen betearazpenari buruzko egoera zein dan azalduz, eta horren barri udalbatzari emon.

Hori dala eta, Idazkari-kontuhartzaileak 2017ko maiatzaren 9ko txostena egin dau udalbatzari jakinarazoteko. Izan be, txosten horren eguna erreferentzia modura hartuta 2016ko laugarren hiruhilekoari jagokon berankortasuneran datuak honeexek dira, beti be bertan azaltzen danaren araberan:

<b>HIRUHILEKOAN EGINDAKO ORDAINKETAK</b>	
<i>Ordaindu diran legezko epearen barruan</i>	<i>Ordaindu diran legezko epe barruan</i>
284.534,42€	187 ordaintzeta kopuru
<i>Ordaindu diran legezko epeetik kanpora</i>	<i>Ordaindu diran legezko epe kanpora</i>
74.405,79 €	41 ordaintzeta kopuru
<b>HIRUHILEKOAN ORDAINTZEKO DAUDENAK</b>	
<i>Ordaintzeko legezko epearen barruan</i>	<i>Ordaintzeko legezko epeetik kanpo</i>
68.045,35€	1.950,50 €

Horreei buruzko datuak txosten horrerri erantsitako zerrendan agiri da.

Horrezaz gain, 2017ko lehenengo hiruhilekoari jagokozan hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epe orokorra hauxe izan da: 2,58 egun.

Zinegotziak horren guztiorren jakinaren ganean geratu dira.

**8.- BAKION 2018AN TOKIKO JAIEGUNA ZEIN IZANGO DAN PROPOSATU.**

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Justizia Sailaren 2017ko maiatzaren 5eko eskutitzaren barri emon dau idazkariak; izan be, bertan Udalarri honako hau eskatzen deutso: 2018. urtean Bakion herriko tokiko jaia zein izango dan zehazteko.

Udal Zerbitzuetako Informazio Batzordearen erizpenari kasu eginez, udalaren osoko bilkurak ondoko hau erabagi dau aho batez:

**Eusko Jaurlaritzari proposamen hau egitea: Bakioko udalerrian 2018ko martiaren 19a (San José eguna) tokiko jaia izatea.**

## 9.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

José Antonio Abio zinegotziak, EAJ/PNV taldearen izenean, alkate andreari hauxe dinotso: *2017ko urtarrilaren 26an egindako udalbatzarrean ulertu neban adierazo zenduala kartelak ipintea arautzen dauan ordenantzea ez jatzula guztatzen eta, aplikatzen ez dan ezker be, ordenantza barri bat informazio Batzordeari proposatuko zeuntsola. Beraz, lau hile pasau diran arren, ezer egin ez dan ezker, orain indarrean dagoan ordenantzea aplikatzea eskatzen dogu.*

Ametz Jauregizar andreak dinotso:

Batetik, ez da egia ordenantzea ez jatala gustatzen esan nebanik, eta, bestetik, guk ez daukagu arazorik gaiari heltzeko. Dana dala, hiru talde politikotik edozeinek egin leike ordenantza barri baten maminari buruzko proposamena, eta eztabaidatuko da.

Urtarrileko udalbatzarren adierazo zan Bakiobai taldeak panelen gaiari buruzko proposamena egin ebala, eta esan be egin zan ordenantza landu aurretik panelak non ipiniko ziran erabagi behar zala. Panelen gaia informazio batzordean eztabaidatu zan eta, ganera, udal aurrekontuan jaso beharreko inbertsinoen atala osotzeko, herritarrei egindako galdeketaren artean panelak erosteko gaia azaltzen zan, besteak beste, baina herritarren aldetik gaiak ez eban atxikimendu handirik jaso. Dana dala, gu prest gagoz gaiari buruz barriro eztabaidatzeko; horrenbestez, EAJ udal taldeak egin leike berak ondo ikusten dauan proposamena.

Josu Garai zinegotziak proposatu dau datorren informazio batzordean panelen gaiari buruz berba egitea eta talde politiko bakoitxak bere proposamenak egitea.

Eguneko aztergaien zerrenda barruan, ezta zerrendatik kanpo be, gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagiteko ez dagoanez, alkate andreak batzar hau 19:45ean emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkate andrea

Idazkaria